


5. URA, BIZITZAREN ITURRI!

GURE PLANETAREN SORRERA

Hainbat **teoria** egon diren arren, gaur egun, zientzialari gehienak ados daude **Unibertsoaren, Lurraren eta uraren sorrera** azaltzen duen **teoriarekin**:



1. Izugarrizko leherketa egon zen **BIG BANG** deiturikoa. Horren ondorioz, **izarrek** eta **galaxiak** sortzen hasi ziren. Horien artean, **EGUZKIA** (izar bat) eta **gure planeta** sortu ziren.



2. Hasieran, **Lurra** suzko bola bat zen. Planeta **oso beroa** eta **lehorra** zen.



3. Mila urte pasa eta gero, eguzkiaren indarra gutxitu egin zen eta Lurraren **temperatura epeldu** zen. Barrutik **bero** izaten jarraitzen zuen.



4. Barruko beroa, **sumendietatik** ateratzen hasi zen. Bertatik, **arroak** eta **gasak** ateratzen ziren. Gas horiek, Lurraren inguruko **geruza** bat sortu zuten.



5. **Geruzaren** ondorioz, Lurra **hoztu** egin zen. Horrela, milaka urtez alertu gabe aritu zuen **euria** eta **Lurra UREZ BETE ZEN**.

JARDUERA 0. Ikus ezazue bideoa eta erantzun ezazue ondorengo galderei:

Big Bang teoria

<https://www.youtube.com/watch?v=1eATYkQXR8>

▪ Zeri deitzen zaio *Big Bang*?

▪ Noiz egin zuen *eztanda*? Aukeratu erantzun egokia.

☐

Orain dela 15.000 urte inguru

☐

Orain dela 15 milioi urte inguru

☐

Orain dela 15 mila milioi urte inguru

▪ Ordenatu itzazu ondorengo irudiak. Nola gertatu izan zen Lurraren eta uraren sorrera?

1

2

3

4

5



EUSKAL HERRIA URETATIK POLIKI-POLIKI ATERA ZEN

Ekaitza amaitu zenean, Lurra **urez beteta** geratu zen. Apurka-apurka, **sumendi, lurrikara** eta **lur zatien mugimenduen (talkak, bultzadak, ...)** ondorioz, lurra zati handiak ur azpitik ateratzen hasi ziren. Horrela sortu ziren → **mendiak, mendikateak, muinoak, ...**

Euskal Herriko lurrak ere uraren azpian zeuden garai hartan. Apurka-apurka, **barneko-indarrei** esker, uretatik azaleratzen hasi ziren. Milioika eta milioika urte behar izan ziren gaur egungo Euskal Herriko lurrak azaleratzeko.




GURE PLANETA GAUR EGUN


Gaur egun, Lurrak **4.600 milioi urte** dituen arren, **azaleraren gehiena urez estalita** du. Lurraren **%75 dago urez** estalita eta **% 25a kontinenteak** dira.




- **JARDUERA 1.** Aurreko datuak kontuan hartuz, aukeratu itzazu zeintzuk diren **ziklograma** egokienak "Lur planetan uraren eta lurraren arteko banaketa adierazten duena":



- **JARDUERA 2** **Kontinenteen** eta **ozeanoen** izenak kokatzen saia zaitez. Kontsulta ezazu mapa batean beharrezkoa izanez gero, eta ahaztu zaizkizun izenak idatz itzazu. Denak ondo kokaturik dituzunean, ikas itzazu buruz.



NON AURKI DEZAKEGU URA GURE PLANETAN?




Gure planetan, ur gazi gehiago dago ur geza baino.

Ur guztiaren % **94** ur gazia da, eta % **6** ur geza da. Gainera, ur geza horren % **33** bakarrik da erabilgarria bizidunontzat. Beste guztia % **67**, izotza da eta glaziarretan edo poloetan dago.



Non aurki dezakegu ura?

- **Ur gazia**, itsasoetan eta ozeanoetan dago.
- **Ur geza**, ibaietan, lur azpiko uretan, izotza, aintziretan, ... (kontinenteetan dagoena) dago.

JARDUERA 3. Erreparatu aurreko datuei eta kokatu itzazu dagokien laukietan, *ur gazia* eta *ur geza*.



JARDUERA 4. “Non aurki dezakegu ura gure planetan?” atala arreta osoz irakurri baldin baduzue, saiatu zaitezte hurrengo eskema osatzen. Kokatu itzazue dagokien laukietan.



Aurreko mapa- kontzeptualean "**Hidrosfera**" hitza irakurri duzu. Ba ote dakizu azaltzen zer den? Noizbait entzun izan duzu edota **atmosfera** eta **litosfera** hitzak? Hara non, gure planetako geruzak dira:

- **Hidrosfera** gure planetako urak osatzen duen geruza da. Ur gazia eta ur gezan multzoa da.
- **Litosfera** planetako lur zatiek (kontinenteak) osatzen duten geruza da.
- **Atmosfera** lurra inguratzen duen eta gasez osaturik (airea...) dagoen geruza da.

JARDUERA 5. Beheko marrazkian aurreko hiru kontzeptu horiek ageri dira: **litosfera**, **atmosfera** eta **hidrosfera**. Idatz ezazu lauki bakoitzean dagokion izena.

